

ZUREKIN BARRE EGIN, EZ ZURE BIZKAR



2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



Nafarroako
Gobernua

ZUREKIN BARRE EGIN, EZ ZURE BIZKAR

BIZIKIDETZA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN
HOBETZEKO KANPAINA. (2008-2009 IKASTURTEA)



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Izenburua:

Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

Ipuinen egileak:

Javier Izcue, Pilar Ayerra, Patxi Sanjuán, Gabi Goia,
Joserra López, Leonor Pérez, Ane González

Orientazio didaktikoa:

Patxi Sanjuán, Cristina Satrustegui

© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

1. edizioa, 1. inprimaketa (2008)

Ilustrazioak:

Beatriz Menéndez

Inprimaketa: Ona Industria Gráfica

L.G.: NA-3814-2008

AURKEZPENA

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak helburu lehenetsia du bizikidetza Nafarroako ikastetxeetan hobetzeko eginahala egitea; ildo horretatik kanpaina bat abiatzen du urtero ikastetxeetan irakasleek egunean egunean ikasgeletan egiten duten lanaren osagarri eta lagungarri. Aurten Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak hartu ditugu aintzat eta ikasketa maila guztietarako ipuin bana aurkezten dugu, zein bere jarraibide metodologikoekin.

Segur gara irakasleek moldatu egingen dituztela historiok zeinek bere gelako errealitate aldakorraren arabera, halatan non, helburuak bat direlarik, lanek garapen bana izanen duten, denak ere aberatsak eta baliagarriak bizikidetza positiboaren bidez garatuz joateko gaitasun soziala eta autonomia eta ekimen pertsonala. Badakigu zer garrantzi handia duen irakasleen eguneroko lanak, ohartzen gara elkarrekin bizitzen ikasteko kanpainak ez direla aski, eta ikastetxeetako elkarbizitza dela elkarrekin bizitzen ikasteko bide nagusia. Horregatik nahi dugu material hau irakasleek itxuratu, prestatu eta bururatu egiten duten zerbait izan dadin. Bihotz eman nahi diegu hain maila profesional handiko eginbide horretan; zuekin guztiokin kontaktzen dugu eta zuen esanera gaude.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA
Hezkuntza Kontseilaria

AURKIBIDEA

SARRERA	9
LANERAKO ELEMENTUAK	10
TESTUEN EZAUGARRIAK	11
IPUINAK NOLA LANDU	12
LAN FITXETARAKO PROPOSAMEN BATZUK	20
IPUINAK	23
HAUR HEZKUNTZAKO 1. KURTSOA	
Ezkuineko eskua eta ezkerreko eskua	24
HAUR HEZKUNTZAKO 2. KURTSOA	
Beltzi eta Blank	26
HAUR HEZKUNTZAKO 3. KURTSOA	
Zergatik ari da sahasa negarrez, zergatik	29
LEHEN HEZKUNTZAKO 1. KURTSOA	
Irene	32
LEHEN HEZKUNTZAKO 2. KURTSOA	
Rakelen karta	35
LEHEN HEZKUNTZAKO 3. KURTSOA	
Mikeltxo	37
LEHEN HEZKUNTZAKO 4. KURTSOA	
Abuelita	39
LEHEN HEZKUNTZAKO 5. KURTSOA	
Saski-baloian ari	41
LEHEN HEZKUNTZAKO 6. KURTSOA	
Liburuen kartzela	43

1. SARRERA

Hezkuntza Departamentuak kanpaina bat abiatzen du urtero ikastetxeetan bizikidetzaren hobetzeko. Lehenbiziko kanpainak, orduan gizartearen kezkarik handiena zen problema bati ekin zion. "Ireki itzazu begiak" deitu genion eta *bullying* delako fenomenoari eta esan bezala haren inguruan gizartearen zegoen kezkarik aurre egiteko kanpaina zen. Eskola ume guztiei zuzendu zitzaion, adinik ez mailarik bereizi gabe. Eskola jazarpena geroztik etengabe landu izan da ikasgeletan eta hura galarazteko jarduerak zein egiturak ezarri dira, eta nahiz eta tamalez oraindik kasuren batzuk izaten diren, ikastetxeek bizkor eta eragingarri egiten diete aurre.

Bigarren kanpaina modu proaktiboagoan hezkuntza komunitate osoari zuzendu zitzaion eta gurasoentzako, irakasleentzako eta neska-mutilentzako mezurak zeuzkan. Funtsean Lehen Hezkuntzako azken kurtsoetarako eta Bigarren Hezkuntzako lehenbizikoetarako pentsatu zen.

Kanpaina haletarako eratu zen materiala gaur egun ere erabiltzen da ikastetxeetan eta Hezkuntza Departamentuan dago eskatu nahi duenaren eskuragarri.

Eta orain hirugarrena dugu, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza helburu dituenak. Bultzatzen egin nahi diogu pentsamendu kausal eta kontsekuentzialari, helbide-helburu terminoetan pentsatzen ikasteari eta, berariazago, gatazkak ebazteko pentsamendu alternatiboari. Gure neska-mutilek ikasi behar dute soluzio askotarikoak eta irudimentsuak bilatzen sortzen zaizkien istiluak konpontzeko. Enpatia erabiliz era bateko nahiz beste indarkeriaren bideak alferreko eta arbuigarri bihurtzen dituzten soluzioak.

Eginbide horretan, gure lagunek, maisu-maistrek beren konbikzioa eta lagun-lana jartzen digute eskura. Eta familiak ere, gurasoak, bidelagun ditugu, gero eta gehiago laguntzen baitigute bizikidetzaren positiboaren bidean.

Azkenik, gure esker ona adierazi nahi diegu Javier Izcue, Pilar Ayerra, Patxi Sanjuán, Gabi Goia, Joserra López, Ane González eta Leonor Pérezi geure esku jarri dutelako beren talentu desinteresatua orain argitara dakartzagun ipuinok idazteko.

2. LANERAKO ELEMENTUAK

Fotokopiatzeko material-koaderno , honez gain, beste zenbait gauza argitaratu ditugu: :

- Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako ikasgela bakoitzerako poster bat.
- Iradokitzen dugu ikastetxeek, kanpaina honen lagungarri eta guraso elkarteekin koordinaturik, bizikidetzaren gaia landu dezaten gurasoekin beren ikastetxeetan.

Kanpainaren bukaeran ikastetxeek, nahi badute, Bizikidetzarako Aholkularitzara bidal ditzakete (Hezkuntza Departamentua Santo Domingo z/g, 31001. Iruña) beren taldeetan ipuinei jarri dizkieten bukaera berri onenak. Ipuin bakoitzeko bost lan hoberekin foileto bat egingen da parte hartu duten ikastetxeen artean banatzeko.



3. TESTUEN EZAUGARRIAK

Ipuin bat proposatzen da adin tarte bakoitzerako (kurtso bakoitzerako). Horren helburua da ikasleek aldeko jarrera hartu dezaten guztientzako mesedegarri diren soluzioak bilatzeko. Horretarako aurrena ipuinak aztertu eta, Haur Hezkuntzan, guztien artean ipuinaren bukaerari alternatiba hobeak bilatu. Lehen Hezkuntzan, alternatiba horiek pentsatu ez ezik, idatzi ere egin beharko diote bukaera alternatibo bat beren ipuinari.

Eginahala egin dugu ipuinak adin bakoitzerako egokiak eta ulergarriak izan daitezen baina taldeko maisuak edo maistrak izanen dira azkeneko egokitzapena egingen dutenak:

Hemen aurkeztu dugun testu bakoitzak ezaugarri deitoragarri hauetakoren bat izan dezake:

- Bukaera ez da sozialki onargarria.
- Bukaera negatiboa da alderdietako batentzat.
- Bukaerak sufrimendua sortzen du.
- Bukaerak indarkeria ageri du.
- Bukaera indarrez ezartzen da.
- Bukaera pertsonaietako batentzat ez da gogobetegarria.



4. IPUINAK NOLA LANDU

Irakasle bakoitzak badaki bere taldearen berri eta berak juzgatuko du ea komeni den ala ez lana sistema honen arabera lan egitea. Guk iradoki egiten dugu lan egiteko modu hau, baina ikasgela bakoitza mundu bat da eta haurren heldutasun maila diferenteek erakutsiko digute nola joka.

Irakasle bakoitzak zehaztuko du bere kasurako nola komeni den lan egitea.

4.1. HAUR HEZKUNTZA

Ipuinak gelan landu ohi diren modu berean landuko dira.

HAUR HEZKUNTZA 1. 3-4 URTE. ESKUINEKO ESKUA ETA EZKERREKO ESKUA

Ipuin honekin landu ditzakegun gaiak:

- Berdinen arteko lankidetzeta.
- Mahaiari jateko gizalege arauak.
- Gorputzaren koordinazioa.
- Elkar aditzeko premia.
- Gatazkak alderdi guztiak irabazle ateratzeko moduan konpontzea (zu irabazle ni irabazle).
- Ezkerrak nahiz eskuinak izan gaitezke.
- Eskuina eta ezkerria.
- Sentimenduak.
- Zurekin barre egin, ez zure lepotik.

★ MAISU-MAISTRENTZAKO ZENBAIT IDEIA

- Neska-mutilek eskuko behatzen gainean hitz egin dezakete... talde-lana egiten dute, izen bana dute, elkar laguntzen dute ...
- Ebazpide bat bilatu denak kontent egoteko: nola berriz adiskidetu Xabelkorekin haserretu ondoren? ¿Nola sentitzen da Xabelko? ¿Eta bi eskuak?
- Nola jarri zitezkeen konforme lehenago? Zer erabaki behar zuten?
- Zer gauza egin ohi ditugu bi eskuekin? Zer gertatuko litzateke esku bakoitzak nahi duena egingo balu?
- Konforme jarri behar garen egoerak

Zer gai landu ditzakegu ipuin honekin?:

- Justizia ala mendekua.
- Problemak konpontzeko alternatibak. Nola geure burua defendatu egoera bidegabeetan baina bidegaberik egin gabe?
- Eskubide berdintasuna nahiz eta botere desberdintasuna egon.
- Elkarrekin ados jarri beharra.
- Gatazkak bi parteei irabaziz ebatzea (zu irabazle ni irabazle).
- Sentimenduak.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

★ MAISU-MAISTRENTZAKO ZENBAIT IDEIA

- Ebazpide bat bilatu denak kontent egoteko. Nola adiskidetu daitezke elkarri egin dizkioten gauzak egin ondoren?
- Elkarriketa bat sustatu galdera hauekin edo antzekoekin:
 - a. Zein dira ipuineko pertsonaiak?
 - b. Zer egiten du Beltzik? Zer iruditzen zaizue? Nola sentitzen da?
 - c. Zer egiten du Blankek? Zer iruditzen zaizue? Nola sentitzen da?
 - d. Zer egiten du Pedrita behorrak? Zer iruditzen zaizue?
 - e. Gaizki egiten digutenean, zer egin behar dugu? Jotzen bagaituzte, guk ere jotzen dugu? Zer beste konponbide gogoratzen zaizkigu?
Joka erantzutea konponbide ona al da?
 - f. Zer egingo zenuen zuk Beltzi izan bazina?
- Pentsatzea konforme jarri behar garen egoera batzuk.
- Posibilitate hau gogoan hartu: ipuina "eskolatuko zaitut" arte irakurri eta umeek jar diezaiotela bukaera, hasieran jarraibiderik gabe eta gero "ez gaizkirik egin" jarraibidea emanda, beti ebazpide justua bilatuz.



Ipuinean gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi zaie ikasleei:

- Laguntza, zerbitzu desinteresatua.
- Elkarlana. Elkar lagundu beharra. Talde lana.
- Ibaiak, ibarrak... distantziak.
- Zailtasunei konponbidea nola bilatu. Pentsamendu alternatiboa.
- Erreprozitatea. Esker ona eta esker txarra.
- Hitzarmenen garrantzia. Konpromisoa eta hitza ematea.
- Enpatia. Nola sentitzen ote da bestea? Alegantzia partekatua.
- Bizitza komuna. Auzoa, hiria, komunitatea...
- Laneko eta adiskide arteko giro ona.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

★ MAISU-MAISTRENTZAKO ZENBAIT IDEIA:

- Baliteke umeek sahatsak nola diren ez jakitea. Ongi litzateke bat ikustea, benetan ez bada, argazkian behintzat.
- Poza nola erakutsi. Nola erakusten dute beren poza inurriek? Eta nola erakusten dugu poza geure auzoan edo herrian?
- Zer esango zenioke sahatsari?
- Zer esango zenioke inurrien erreginari?

Ipuin hau irakurri ondorengo lana ipuinari segida ematea izan daiteke. Irakasleak bukaera aldatzera ere bultzatu ditzake ikasleak.



4.2. LEHEN HEZKUNTZA

Ipuin hauek Lehen Hezkuntzan lantzeko modu orokorra:

Lehen eguna:

- Ikasle guztiek batera irakurtzen dute. Batek ozenki irakurri eta beste guztiek jarraitu.
- Ondoren trankilago irakurtzen dugu berriz, isilik.
- Irakasleak galdera batzuk egiten ditu, ikasgelan elkarrizketa pizteko
- Haurrek bukaera positiboa idazten dute. Bukaera positibo hori irakasleak bildu eta idazlan gisa baloratuko du, hau da, hizkuntza klaserako egindako lana bezala.

Beste egun batean:

- Irakasleak zuzenduta bihurtzen dizkie lanak ikasleei, ohitura duen moduan, eta lan hau planteatzen die:

Atzo bukaera positiboa idatzi zenioten gure ipuinari; gaur gela osoaren bukaera positiboa egingen dugu. Denek ongi bukaera politak idatzi zenituzten. Mundu guztiaren ideiak jasoz, orain, gelaren bukaera idatziko dugu. Esan digute kurtso bakoitzeko lan hoberenekin liburu bat egingen dutela. Honela egingen dugu:

a) Bost laguneko talde bat egingen dugu.

b) Talde bakoitzak bere bukaera idatzi eta ordezkari bat izendatuko du. Kontua ez da gehien gustatzen zaizuenari botoa ematea, baizik eta denen artean bukaera berria idaztea.

c) Behin geure taldeko lana bukatu dugunean gelaren batzarrerera eramanen dugu geure idazkia. Bukaera idazteko, lan-taldeen ordezkariak bakarrik hitz egin dezakete. Denen artean botoa eman eta gehien gustatzen zaiguna aukeratuko dugu. Testua idatzi eta gelako horman zintzilika dezakegu. Ondoren, aldian behin, ahotan har dezakegu "bukaera oneko" ipuina.

LEHEN HEZKUNTZA 1. IRENE

Ipuin honek honako gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi du:

- Elkar lagundu beharra.
- Pertsona guztiak integratu beharra, zein ere ezaugarri dituzten.
- Minusbalio batek gela osoa inplikatzeko du.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar



Ipuin hau bukatu gabe dago, gelako neska-mutilek bukatu behar dute.

LEHEN HEZKUNTZA 2. RAKELEN KARTA

Ipuin honek honako gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi du:

- Elkar lagundu beharra
- Pertsona guztiak integratu beharra, zein ere ezaugarri dituzten.
- Pertsonen, iristen direnean, harrera eman beharra.
- Berdinen arteko laguntza-egiturak sortu beharra.
- Partehartzea.
- Ideiak eta sentimenduak komunikatzea.
- Beste hizkuntza batzuk ikasi beharra.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

Ipuin hau ez da bukatzen, gelako haurrek bukatu behar dute.



LEHEN HEZKUNTZA 3. MIKELTXO

Ipuin honek honako gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi du:

- Pertsona guztien errespetua eta duintasuna.
- Berdinen arteko jazarpena. Mesprezioa, burla eta intimidazioa.
- Elkartasuna. Elkar lagundu eta bermatu beharra.
- Giro onak eta adiskidantzak duen garrantzia.
- Enpatia. Nola sentitzen ote da bestea? Alegantzia partekatua
- Marjinazioa, diferentea dena onartzea.
- Norbanakoaren eta taldearen sentimenduak.
- Elkarrizketaren garrantzia.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

★ MAISU-MAISTRENTZAKO ZENBAIT IDEIA:

- Zer esango zenioke Mikeltxori?
- Zer esango zenieke haren ikaskideei.
- Zer esango zenioke irakasleari?

Irakurri ondorengo lana ipuinari segida ematea izanen da, bukaera justua sortuz.



LEHEN HEZKUNTZA 4. ABUELITA

Ipuin honen testua erdaraz dago. Hego-Amerikako etorkin batek amonari egindako karta denez gero, euskaratuta egi-antza galduko luke; hortaz, diferentea denarenganako errespetua bultzatzea helburu, hobe iruditu zaigu jatorrizko hizkuntzan utzi. Ipuin honek honako gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi du:

- Denekin kontatzeak zer garrantzia duen.
- Enpatia. Nola sentitzen ote da bestea?
- Pertsona guztiak integratu beharra, zein ere ezaugarri dituzten.
- Gu ez bezalakoak diren edo ohitura diferenteak dituzten pertsonak errespetatzea. Bestelako kulturak eta hizkuntza usaiak ezagutu eta errespetatu beharra.
- Ikasleen arteko harreman eta integraziorako egiturak sortu beharra.
- Isolamendua, ikastetxeetan bizikidetzatza bultzatu beharra.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

Ipuin hau ez da bukatzen, gelako haurrek bukatu behar dute.

LEHEN HEZKUNTZA 5. SASKI-BALOIAN ARI

Ipuin honek honako gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi du:

- Elkar lagundu beharra
- Enpatia: nola sentitzen ote da bestea?
- Elkarlana.
- Laneko eta adiskide arteko giro onak zer garrantzia duen.
- Diskriminazioa eta isolamendua. Talde bat ez dago ongi taldekoetako bat baztertzen badu.
- Taldea denen aportazioekin aberasten da.
- Lehiakortasuna eta lehiakorkeria.
- Lidergo positiboa. Justizia
- Arrakasta/porrota partekatua.
- Zurekin barre egin, ez zure bizkar.

Eskatu ikasleei historia hau berriro idazteko denen erabakiak, giro onak eta denek bere lekua izateak garrantzia izateko moduan.



LEHEN HEZKUNTZA 6. LIBURUEN KARTZELA

Ipuin honek honako gai hauen gaineko gogoeta eragin nahi du:

- Ulermena.
- Enpatia.
- Gatazkak ebazteko behar diren pentsamendu desberdinak (kausala, kontsekuentziala, alternatiboa, perspektibazkoa eta helbide-helburuzkoa).

1. Ipuina ongi ulertuko bada, irakurri baino lehen zerbait lan eskatzen du, batez ere heldu batek Lehen Hezkuntzako irakasle bati karta idaztea den bezalako egoera atipikoaren gainean. Gertaera horrek aditzera eman nahi du ipuinaren protagonistak zenbateko bakardadea eta inkomunikazio soziala bizi dituen, haurtzaroan eta goiz-nerabezaroan bizitako jazarpena dela medio. Hala ere, Lehen Hezkuntzako 6.eko ikasleentzat zaila izan daiteke gauza batzuk ulertzea. Horregatik, testua irakurri baino lehen argitu behar genuke Hektorrek bere gazte denborako irakasle bati egiten diola karta (horren arrazoia esplikatuz gabe). Motibatuzeko osagai gisa, eskatuko zaie horren zergatia azaltzeko, irakurketa hasita.

2. Eskatzen den karta idazten hasi baino lehen, komeni litzake taldean aztertzea zer gatazka dagoen, hartarako galderak erabiliz, gatazka baten analisiari pentsamendu mota desberdinak aplikatzera bultzatzen dutenak:

- Zein da problema? Zergatik gertatzen da? Zure iritziz zergatik burlatzen dira Hektorrez?
- Zer gertatuko zaio Hektorri bere bizitzan eta bere lanean?
- Nola defendatzen da Hektor bere lagunek jazarpen diotenean? Eta zuri, zer ebazpide bururatzen zaizkizu?
- Jar zaitetz Hektorren lekuan ebazpide hoberena zein den erabakitzeko. Nola sentitzen da, zure ustez? Nola erreakzionatuko zenuke zuk?
- Zure ustez, zer lortu behar du eta zer egin behar du hori lortzeko?.

Beste galdera aukerako batzuk

- Zer jarrera du irakasleak goxokien asuntoan? Eta gelan barre egiten diotenean? Nola baloratzen duzu erreakzio horietako bakoitza?
- Egoki ikusten duzu familiak semea eskolaz aldatzeko hartzen duen erabakia?

Ariketa proposamena

Idatzi karta bat protagonistari, zuk egoera nola ikusten duzun azaltzeko. Edo bestela, erantzun Hektorri zu irakaslea bazina bezala.

5. LAN FITXETARAKO PROPOSAMEN BATZUK

1. FITXA

Zure izena:

Zure gela:

Gaurko data:

Ipuinaren titulua:

Zer pertsonaia agertzen dira? Zerrenda bat egin pertsonaiak laburki deskribatuz.

Zer iritzi duzu ipuin honen gainean?

Ezagutzen al duzu horrelako kasurik?

Idatzi azpialdean irakasleak agintzen dizun lana.

Gure izenak:

Hona gure lana:

IPUINAK



ESKUINEKO ESKUA ETA EZKERREKO ESKUA

Eskuineko eskua eta ezkerreko eskua oso adiskide txarrak dira. Ezkerreko eskuari lastan egitea gustatzen zaio; eskuinari, berriz, atzamarka egitea. Eskuineko eskuari idaztea gustatzen zaio; ezkerrekoak, berriz, nahiago du pianoa jo. Eta zer esanik ez botoi bat lotu behar dutenean... hortaz, ez dira sekulan konforme jartzen eta ez dezakete inoiz ezer ongi egin.

Egun bater, haien adiskide Kibelkok, beheko solairuan bizirik baita, espagetiak jatera gonbidatu zituen. Ah! Ez dut esan: biei ala biei, eskuinari eta ezkerreari, izugarri gustatzen zaie espagetiak jatea. Eta nori ez? Tomatea tamainan, gazta urtua gaintetik... bueno, aski da, bestela gosetuko gara. Baina badakizue zer gertatzen den... Espagetiak jateko esku biak behar izaten dira. Ezkerrak koilarari eutsi behar dio eta eskuinak sardexkari kontu, espagetiari buelta eragiteko.

Ezkerrak esan zuen:



—Ezta pentsatu ere. Oraingoan nik hartuko dut sardexka.

Eta eskuinak:

—¿Ah, bai? Orduan nik koilara hartuko dut.

Baina eskuinak ez zekien koilarari kontzen eta ezkerrak ez zekien sardexkari heltzen. Hortaz, jaten hasi, eta ezin zuten, eta espageti denak lurrera erortzen ziren.

Eskuina goitik behera zikindu zen tomatez eta ezkerra sardexkarekin ebaki bat egin eta negarrez hasi zen.

Habelko izugarri haserretu zen eta esan zien:

—Ez zaituztet inoiz gonbidatuko berriz nirekin jatera. ★

JAVIER IZCUE



BELTZI ETA BLANK

Eguerdi da. Eguzkia zeru gorenean da, Goizero bezala, Beltzi izeneko sator gazteak bere burutxo beltza altxatzen du satorzuloko atetik, zaldien soroaren erdian. Beltziri izugarri gustatzen zaio lan egin ondoren eguzkitara ateratzea, lehortzeko, bere meatzari-jantzia soinean duela, belusa beltz-beltzezkoa.

Baina gaur Blank zaldiko gazteak Beltziri broma txarra egitea erabaki du. Ikusi duenean Beltziren sudurtxo satorzulotik azaltzen, plast! berealdiko gorotza erori zaio satortxoari buruan, hiru pisuko tarta balitz bezala. Kakalardoek ikusten badute, a ze nolako pilotatxoak egingo dituzten!

—Atozte, atozte, —Blankek, irrintzika barre egitean hortzak erakutsiz, denak handiak eta zuriak, xake-jokoko piezak iduri.

Blanken ama Pedrita behortxoak burua altxatu du instant batez baina gero bazkan segitzen du. Satorrak garrantzirik gabeko animaliatxoak dira. Hain dago belarra gustagarri udaberrian! Gainerako zaldiek ez dute ezer esaten.



—Ah, bai? Hortara, beraz?
—satorrak bere baitan—. Nik
eskolatuko zaitut!.

Eta gau osoan, bere tunel
sarean gora eta behera,
hainbat zulo egiten ditu
soroan eta gero belarrezko estalki mehe bana
jartzen, Blanken gogoeneko bazkalekuetan.

Biharamunean azenario gustagarri bat utzi du
bere satorzuloaren ondoan. Blankek jan du.



Gero eta ondoragotzen da. Eta orain sagar umo bat uzten du zulo ezkutatu baten ondoan. Blank, ikusi, eta lasterka hasi da, beste zaldi batek jango ote duen beldurrez.

Bat batean izugarrizko karrak hotsa aditu da.

—Ai hanka gaixoa! —Blankek oihuka.

Hanka hautsi du.

Beltzik, satorzulotik, dena ikusten du, bibotea garbitzen ari dela.

—Zer? Mina? Ez da, ba, lehenbiziko aldia hanka sartzen duzula...

Eguerdi da, eguzkiak dir-dir eragiten dio soroari, lorez estalitako mahai-zapia balitz bezala.★

JAVIER IZCUE



ZERGATIK ARI DA SAHATSA NEGARREZ, ZERGATIK

Ibaiaz harakoan, marrubi mardul gorriak hazten ziren, zoragarriak.

Ibaiaz honakoan, inurri familia tiki bat bizi zen, hamar bat mila edo, zehatz ez dakigu, ezin hasiko gara kontatzen.

Doña Romualda erreginak honela galdetu zien inurri esploratzaileei:

—Nondik pasatuko dugu ibaia?

—Ezin da ibaia pasatu —esan zuten esploratzaileek—. Ibaia mendi garaienetan sortzen da eta ozeanoan hiltzen, hemendik milaka kilometrora, eta zubi bakarrik ere ez dago.

Sahatsak, ilea urrezko xanpuarekin garbitzen ari baitzen (oso zen koketoa), hitz horiek aditu eta esan zien:

—Ez kezkatu. Igo zaiterzte denak nire bizkarrera. Nik eramango zaituztet nire ilerik luzeenera eta handik pasatuko duzue ibaia.

—Oh, zoragarri —esan zuen erreginak.

—Zoragarri —esan zuten hamar bat mila inurrik edo.



Eta denak hasi ziren antenak astintzen, elkar joka.

—Baina horren ordainetan mesede bat eskatu nahi dizuet.

—Mesedea? —esan zuten inurri soldaduek—. Zer nahi ote du honek?

Inurri soldaduak arrunt gerrazaleak dira.

—Goroldiozko jantzia ekartzea nahi nuke. Goroldioa aurten oso modan dago, horregatik...

—Goroldioa? —galdetu zuen erreginak. Eta kontseilariak esan zioten ez zegoela problemarik. Inurriei ez zaie, ba, goroldioa gustatzen. Herzegia.



Hamar bat mila inurriek, doña Romualda buru zutela, arbolara igo ziren. Arbola oso zen koketoa eta beti egoten zen bere buruari begira uraren ispiluan; burua altxatu eta haren adar luzeena beste bazterrerairaino iritsi zen.

Inurriak, orduan, hamar mila inguru, hamar mila eta bat erregina kontatuta, beste aldera pasatu ziren. Belztu arte... ez, barkatu, gorritu arte jan zuten marrubia, ezin irentsi ahala. Tripa leher egin beharrean zeukatenean, eguzkitan etzan ziren siesta egitera. Inork ez zuen gogorik itzal hotzetara sartu eta goroldioa biltzen hasteko.

Eta inor ez zen sahasaz oroituz eta harekin zuten akordioaz.

Sahatsa, hura ikusita, negar eta negar hasi zen.

Ai sahasa, sahasa negarti, zein bakarrik zauden, zein biluzik. ★

JAVIER IZCUE

IRENE

Behin batean bazen, ba, eskola bat, beste eskola guztiak bezalakoa: gauaz lo eta egunaz zarata egiten zuena. Udazkenaren bukaeran neskato berria etorri zen. Irene zuen izena. 6 urte zituen, ilea horia, limoi kolore, eta begiak argiak, biziak eta handixekoak. Trribarrea bezain handiak eta zabalak. Besteak ez bezalakoa zen, oso, batez ere eserita biziz zelako. Bai, eserita, gurpil handiekiko aulki batean eserita. Ez zen inorekin peleatzen, inorekin ere ez, ez ta Manuelekkin ere, txikiena bazen ere. Ez zen joaten alfombra belauniko edo etzanda irakurtzera, eta ez zen paperontziraino joaten han lapitzak zorroztera eta bidenabar Rafaren estutæea ikusteko, estutæe argiduna, anaia nagusiak Madrildik ekarri ziona. Guk zer ere egin, bera hantæe gelditzen zen eserita, batere mugitzen ez zela, bere tronuan. Mahai izugarri handia jarri behar izan zioten, haren aulkia ez baitzen ongi kabitzen gure pupitreetan.

Goiz batean Kristinak, kuxekuxero galdua baitzen, honela galdetu zion:



—Aizu, lehenago gauza al zinen ongi ibiltzeko?

—Ez naiz oroitzen —erantzun zuen Irenek beti bezala irrifartsu—. Amak kontatu dit hiru urtera arte plazako beste haur guztiak bezala ibiltzen nintzela oinez eta lasterka. Baina orduan sukarra izan nuen izugarri handia eta hankak lehortu zitzaizkidan.

—Hankak ez dira lehortzen. Landareak lehortzen dira, —zuzendu zion Franek, bere usteko jakintsuak—. Hori zozokeria! Igual gehiegi egongo zinen ohean eta ahaztuko zitzaizun oinez. Hain txakia zara!

Denoi asko gustatzen zitzaigun harekin hitz egitea, gauza asko kontatzen baitzituen beti aitonak herrian zeukan baserriaren gainean. Eta



baita pixka bat sorgina zelako: egunero mahai joko berriak ekarri eta sorpresa ematen zigun: Antzara jokoak, magia jokoak eta abar. Oso dibertigarria zen. Berak pintatzen zituen dadoak, kubileteak apaintzen eta txartelak asmatzen zituen gure izenekin bere jokoetarako. Inportanteak sentitzen ginen harekin. Baina beti gauza bera gertatzen zen: Atsedeneko txerrina aditzen zenean, eroaldia sartzen zitzaigun guztioi, gosaria hartu, berokiak, eta arrapaladan ateratzen ginen noranahi korrika. Denbora guztian lasterka eta jostaketan aritzen ginen. Bitartean, Irene guri begira, eserita, bakarrik.★

PILAR AYERRA



RAKELEN KARTA

Egun on, neska-mutilak!

Rakel naiz eta bigarreanean nago. Oso pozik nago nire gelarekin. Maistra pila bat daukat eta maisu bat, nire tutorea dena. Jose du izena eta batzuetan parkean lasterka ikusten dut bere ume txikiarekin. Niri barregura ematen dit horrela ikusteak, txandala soinean parkean barrena silletari bultzaka. A zer abiada aurpegia izaten duen umeak!

Eskolan oso gustora egoten naiz. Gehien gustatzen zaidana da atsedenaren ondoren biribilean jarri eta elkarri kontatzen dizkiogunean geure gauzak. Eta gustatzen zait horrela, atsedenean haserretu garenean, batzuetan gure haserreak konpontzeko modua ematen digulako. Ematen du hitzak magia bihurtzen direla elkarri entzuten diogunean. Irakasleak bolo bat bezalako plastikozko traste bat ematen digu eta gauza hori eskutan daukanak bakarrik du libre hitz egitea. Irakasleak dio, horrela, bat mintzatu eta besteak adi egoten garela. Astearteetan ingeles klasea izaten dugu eta orduan niri ez zaizkit hitzak ateratzen eta garrantzi handiko zerbait esateko badaukat ere, esan ezinik ibiltzen naiz, baina irakasleak pazientzia handia du eta ez digu barre egiten ez eta besteri barre egiten, utzi ere. Nik nahiago dut nire gauzak euskaraz kontatu, hitzak errazago ateratzen zaizkidalako.

Gaur arraro xamar sentitzen naiz, ongi ezik, eta uste dut dela gaur biribilean lehenbiziko aldiz kontatu dudalako nire kezka.

Atzo zuzendaria sartu zen klasera azken orduan. Neska bat zetorren harekin. Esan zuen Fatima zuela izena eta gure klasera etorriko zela. Ondoren ethezaina etorri eta beste mahai bat jarri zuen atzealdean

Gaur etorri da neska hori eta ez du txintik atera. Josek galdetu dionean nongoa den isilik gelditu da eta piper gorria baino gorriago jarri da. Gauza bera gertatu zaio Maiterekin, soinketako irakaslearekin.

Patiora atera garenean neska berria zoko batera joan da, etxezaintza-
ren ondoan eta han denbora guztian kaleari begira gelditu da. Nik ez dakit
zer esan eta zer egin, zergatik, gainera, ez baitaki gu bezala mintzatzen...

Uste dut hau biribilean esan beharko nuela, baina isildu naiz. ★

PATXI SANJUÁN



MIKELTXO

Mikeltxok 10 urte zituen. Bigarreanean zegoen eta Nerea zuen maistra. Arratsaldero ipuinak eta historia miragarriak kontatzen zizkien.

Egun batez denak biribilean eseri eta maistrak galdetu zien.

—Zuetako inork ezagutzen al du Dunbo elefantearen historia? Ikusi al duzue pelikula hori?

Batzuek ikusia zuten, baina nola askok ez zuten ikusi, maistra hasi zitzaien pelikula kontatzen.

—Dunbo elefantetxo bat zen belarri ikaragarri handikoa. Ama preso zeukan urruti, zirko bateko kaiolan eta Dunbo bakarrik sentitzen zen. Ez baitzuen nork zaindurik, zirko batera eraman zuten bizitzera. Han ez zegoen pozik, tristerik bizi zen eta zirkoko animalia gehientsuenek barre egiten zioten: “Belarri-luze! Belarriekin estrapozo egiten duzu! Ja, ja, ja.”

Denak isilik zeuden, ipuinari adi-adi. Bat batean Mikeltxo konturatu zen ondoan zeuzkan bi umeak barrez ari zirela eta berari buruz zer-bait esaten zutela:

—Mikeltxo Dunbo bezalakoa da.

Berehala Mikeltxok eskuak belarrietara eraman eta estali zituen. Nereari begiratu zion baina maistra ezertaz jabetu gabe segitu zuen ipuina kontatzen. Bukatu arte.



Egun harez geroztik Mikeltxoren bizitza aldatu zen. Goizero, eskolara bidean, Koldo, aldameneko espaloitik oihuka aritzen zitzaion:

—Duuuuuuuuuuuuuuuuuuuuunbo, Duuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuunbo.


Ikasgelan, ez zioten ziririk egiten, baina jantokian ... gorrotagarri egin zitzaion jantokia!

Mikeltxok ogia eskatzera egiten zuen aldiro, Koldok eta Tximok belarritik tiratzen zioten. Izaro, ikasgelako neskarik ederrenak eta haren lagunek ere bai barre egiten zioten atsedenetan eta haren bizkar broma egiten zuten.

Mikeltxok dena isilik eramaten zuen. Aita oso lanpetuta egoten zen fabrikako lanarekin eta ez zuen betarik halako tontakerietarako. Halako gauzak amari kontatzea era alferrik zen, zeren haren begitan Mikeltxo munduko haurrik ederrena zen eta haren belarriak zoragarriak ziren.

Bat batean, begietan etsipenaren zantzuak azaltzen hasi zitzaizkionean... ★

GABI GOIA




ABUELITA

Hola abuelita:

¿Qué tal está usted por allá? Ya habrá platicado con mi mamá y le habrá dicho que todo va muy bien por acá. Ella encontró trabajo en casa de una señora, cuidando a la abuela, y nosotros empezamos la escuela. Es bien linda la escuela, toda llena de libros, computadoras, pinturas, mesas y sillas. No como allá que apenas si tenemos un lapicero para escribir y un pupitre para dos. Pero si le digo la verdad les echo terriblemente de menos. Acá hay

muchas cosas pero me faltan ustedes y me faltan mis amigos. Lo estoy pasando mal entre los niños y niñas de la escuela.



El primer día que entramos en la escuela, todos se me acercaban y querían jugar conmigo y así siguieron durante las primeras semanas. Yo también me esforzaba en ser amable y conocerles. Pero, aunque lo intenté, no era fácil. Aunque hablamos el mismo idioma hay muchas palabras distintas y cuando yo digo alguna palabra que no conocen o que ellos utilizan de forma diferente se me ríen. Y a mí no me gusta que se me rían. A mí me gusta mucho reír, ya lo sabe usted, pero me gusta reír con los demás, no reírme de los demás.

Acá, en cambio, les gusta mucho reírse de mí. Y yo lo paso muy mal.



Fíjese que al principio hablaba y reía mucho y cada vez lo hago menos, por miedo a que se rían de mí.

Desde que les dije que allá al cerdo le decimos coche, me dicen que parezco un



coche cada vez que me quito los mocos con la manga de la chaqueta. Usted ya sabe que allá así nos quitamos los mocos, pero acá no, acá hay que utilizar un pañuelo, un trozo de tela que llevan en el pantalón y que aún lleno de mocos lo meten en el bolsillo del mismo. Yo no entiendo por qué razón es más limpio uno que se mete los mocos en el bolsillo que el

que se los quita con la manga, pero así son las cosas por acá.

También se ríen de mí porque estoy un poco gordita y llevo a la escuela la comida que prepara mi mamá, tan diferente a la comida de acá. Dicen que si sigo comiendo así me pondré como una vaca.

O se ríen porque no hago las tareas y cuando las hago muchas veces me equivoco. Pero no saben que cuando vengo a casa tengo que cuidar a mi hermano pequeñito y preparar la cena, pues la mamá no regresa a casa hasta bien tarde.

Estoy contenta porque estamos toda la familia unida y cuando voy a casa me olvido de la escuela y de todos esos niños y niñas. A mí me gustaría ser su amiga, ir con ellos a la piscina, reírme con ellas... pero parece que es difícil.

Bueno abuelita, espero que no se entristezca con estas noticias pero, como no está a mi lado para escucharme y darme su consejo, le envió esta carta para que lo haga por escrito.

Un abrazo muy fuerte, de esos que solíamos darnos cuando estábamos juntas.

Elvira Leonarda ★

JOSERRA LÓPEZ


SASKI-BALOIAN ARI

—Ana eta Ainhoa, zuek atzean, bajuak zarete eta ez duzue tanto bakarrik ere egingo. Leire, zu nire ondoan, nire adiskide hoberena zarela. Andrea ere erdian, bale? Gaur behintzat irabazi egingo diegu mutilei, atzo bezala gertatzen ez bada... parragarria izan zen... Horretarako, Leire eta biok ez dugu jokatu nahi, ulertzen? Eta guk jokatzen ez badugu, zuek ere ez.

Maiderek hitz egin zuen. Ainhoak eta Anak triste begiratu zioten elkarri zein bere tokira joan baino lehen. Laura bere buruaz segurxeago, erdi irribarre bat ezpainen zuela, konplizitate keinua egin zion Andreari. Leirek, berriz, Maiderra begi-begira zegoen, beste inorentzat begirik ez zuela. Mainer zen 5A osoko neskarik guaiena: hain zen altua, hain ederra, hain hotza, hain ilehoria... mutilek kasu egiten zioten, arropa sexya eramaten zuen, itzala bazuen. Nik banekien gelako elitekoa nintzela eta konturatzen nintzen han segitu nahi banuen hobe nuela Maiderrin begiko ninia izaten segitu.

Mutilak heldu ziren, Josu futbolista buru zutela. Maiderek harengana hurbildu eta papertxo koloretsu bat pasatu zion. Mutilak sakelari sartu zuen.

—Maidere, uste dut nitaz ahaztu zarela, Non jarriko naiz?



Itziar tontoa zen, bistan zen ez zutela nahi gabe ahaztu eta, gainera, traba egin zion Mainerri Josurekin hitz egiten ari zela... Mainerrek izotzezko begirada bota zion, eta okerrera zen Itziarrek hortxe segitzen zuela, mugitu gabe, begiak zabal-zabalik, haren inozentzia ergela ezkutatu gabe.

—Zuk ez duzu jokutzen.

Lau hitz ximple eta zakar. Ondoren, Mainerrek bizkarra eman zion eta hasi ginen besteak jokutzen ezer izan ez balitz bezala. Itziarrek begiak zabal-zabalik begiraten zigun, peto. Ez zait sekulan kenduko gogotik begirada hura... eta hala ere ez nion lagundu, inork ez zion lagundu, ez saski-baloi taldearen kon-tuan ez talde-dantzarenean,,, ezertan ez zion inork lagundu.

Itziarrek zaborretara bota zuen bere inozentzia hura, Seigarreneko neskekin adiskidetu zen eta luze gabe haien nagusi izan zen eta haietako ahulena bidali zuen taldetik. Mainer baino okerrago izan omen zen.

Duela egun batzuk ikusi nuen eta neure baitan pentsatu nuen zer gertatuko zen harekin gutako norbaitek harekin jokatu balu. ★

ANE GONZÁLEZ

LIBURUEN KARTZELA

Gabriela maitea:

Oroitzen naiz nolakoa izan zen nire lehenbiziko eguna kolegio berrian. Iraileko goiz beroa zen, ekainekoa iduri, nire auzoko eskolan 5.a bukatzeaz nengoela.

Etxe berean bizi baginen ere, nire familiak erabaki zuten eskolaz aldatu behar nuela. Nire ikaskideek ez omen ninduten ulertzen: oso argia omen nintzen. Uste nuen argia izatea suerte handia zela, opari bat, bertute bat, baina niri disgustu izugarriak besterik ez dit eman. Irakasleak azterketa bat zuzenduta bueltatu eta hamar ateratzen nuenean, edo galderei beti ongi erantzuten nienean, begirada burlazkoak ikusten nituen nire gela-lagunen begietan, komentarioak eta zurrumurruak. Gero, patioan eta kalean nire belarriez, nire betaurreko-
ez, nire ibilera traketsaz burlatzen ziren. Nik ikusten nuen beste gelakide batzuek ere bazituztela gorputzeko akatsak, baina niri egiten zidaten burla. Pentsatu nuen hori argia nintzelako egiten zutela eta ezin nuen ulertu.

Iraileko goiz bero hartan ni eskola berri batera joatekoa nintzen. Espero nuen han dena diferentea izanen zela. 6. gelara sartu nintzenean zuk lista pasatu eta eskatu zenigun denoi labur kontatzeko nola pasatu genuen uda. Gelako gehienek hiru urtetatik ezagutzen zuten elkar, adiskideak ziren eta askok elkarrekin pasatu zuten uda.


—Nik Hektor dut izena, berria naiz eta nire oporretatik, gauzarik aipagarriena da egun honek egiten



zidan ilusioa —esan nuen, egiati.

—Zein kutrea! —erantzun zuen boz batek eta zuk ez zenuen ezer esan. Nik ere ez nuen erantzun, ez nekien zer egin; baina pentsatu nuen: “Hara, berriz sartu dut hanka”. Lehenbiziko bi-hiru asteetan ezer esan gabe egon nintzen. Denek begiratu egiten zidaten, baina inor ez hurbiltzen.

Goiz batean (uste dut urria zela ja), Tomasek goxokiak eraman zituen gelara bere urtebetetzea zelako: bina goxoki; baina ez zuen nirekin kontatu, agidanean



ez nintzen harentzat existitzen. Ez dakit oroituko zaren, Gabriela: Eskatu zenion Tomasi bereak niri emateko, etxean sobrante izango zituela eta, etxera joanda nahi adina jango zituela. Tomasek obeditu zuen eta goxokiak eman zizkidan, eta gaur balitz bezala oroitzen naiz zer aurpegia jartzen zuen: ezpainak estututa eta beltzuri. Mespreziosz bota zizkidan goxokiak mahai gainera.

Aurreko eskolan Dunbo edo txorimalo banintzen, orain goxoki lapurra nintzen, eta pinturak, estutxeak eta dena ezkututzen zidaten, motxila ere bai.

Nik ulertzen nuen Tomasen haserrea, baina ez hainbeste irautea eta ez neska-mutil guztiek harekin bat egitea.

—Tomasengana hurbildu nintzen.

—Utzi bakean, buruhandia —moztu zidan hark, bizkarra emanaz. Besteek barre egin zuten.

Seigarrena oso nota onekin bukatu nuen, baina bakarrik. Kanean ere ez neukan adiskiderik. Normalean ikaskideen lagunak ikaskideak berak izaten ziren. Baina ni...

Institutura hasi nintzenean erabaki nuen ezertan ez nabarmentzea eta ikasi besterik ez egitea. Ez nien utziko berriz baztertzen, eta hori galarazteko bide bakarra zen neuk neure burua baztertzea. Bigarreneko sei urteak liburuetatik etxera eta etxetik liburuetara pasatu nituen. Ikasi eta irakurri, irakurri eta ikasi, besterik ez nuen egiten. Liburuetako pertsonaiek on egiten zidaten, ezin zidaten minik egin eta esaten zizkidaten gauzek helduago egiten ninduten baina minik egin gabe.

Ohitu naiz bakardadera, baina mingarria zait, liburuek paperezko kartzela batean bezala preso naukate.

Orain, medikuntzako titulua eskuratu orduko nire lehenbiziko lana aurkitu dut auzoko osasun etxean. Beldurrez akabatzen nago badakidalako kontsultara sartzen den lehenbiziko pertsonak barre egingo didala.

Zuri idazten dizut, Gabriela, zu izan zinelako begietara begiratu zidan irakasle bakarra.

Agur

Hektor. ★

